

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako programaren barruan 2019. urtean Vitoria-Gasteizko enpresetan lan-kontratazioa sustatzeko udal laguntzen deialdia aldatzea onesteko erabakia

2020ko ekainaren 26an egindako bilkuran, Tokiko Gobernu Batzarrak 2019. urtean Vitoria-Gasteizko enpresetan lan-kontratazioa sustatzeko udal laguntzen deialdian 4. eta 14. oinarriak aldatzea onetsi zuen –batez besteko plantilla mantentzeari eta justifikazioari buruzkoak–, arau-aurreikuspenen egitura eta xedea behar bezala egokitzeko covid-19ak sortutako epidemiaren ondoriozko errealitatera.

2018ko abenduaren 28an onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen deialdiak arautzen dituzten oinarri orokorrak (2019ko otsailaren 13ko ALHAO, 19. zenbakia).

2019ko irailaren 6an egindako bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak berariazko oinarriak eta deialdia lan-merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten langabeei Vitoria-Gasteizko udalerrian 2019an besteen konturako lan-kontratu arruntak egitea sustatzeko laguntzak emateko udal programarako, eta 2019ko irailaren 13ko ALHAOn (106. zenbakia) argitaratu ziren. Deialdiak 1.110.000,00 euroko zuzkidura zuen hasteko, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak finantzaturik, VII. Eskualdeko Enplegu Planaren barruan (2019).

Deialdiaren 6. oinarrian ezarritakoarekin bat etorritik, eta Lanbidek emandako dirulaguntza handitu zelarik (2019ko maiatzaren 31ko EHAA), laguntzen deialdiaren zuzkidura ekonomikoa 342.000,00 euro handitzea onetsi zen Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariak 2019ko urriaren 15ean emandako ebazpenaren bidez.

Eskabideak aurkezteko epea bukatu zelarik, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariaren 2020ko martxoaren 3ko ebazpen baten bidez ebatzi zen orotara ehun eta laurogeita hemeretzi (199) laguntza ematea, hau da, 1.449.644,40 euro, balorazioa hoberena lortu zuten eskabideei zegozkienak, zuzkidura ekonomikoa agortzeraino. Laguntza jasotzeko baldintza hau jarri zen: diruz lagundutako jardueraren fede ematen zuten egiaztagiria aurkeztea 2020ko maiatzaren 15a baino lehen. Ebazpena 2020ko martxoaren 16ko ALHAOn (31. zenbakia) argitaratutako iragarkiaren bidez jakinarazi zen.

Covid-19aren osasun-krisiak sortutako egoera aparteko eta aurrekaririk gabekoaren aurrean, eta diruz lagundutako enpresek dirulaguntza jaso duen jarduera egiaztatzeko aurkeztu beharreko justifikazioa malgutzearren, 2020ko ekainaren 8ko idazkiaren bidez, Enplegu Sustapenerako Atalak eskatu zuen batez besteko plantilla mantentzeari dagokion atalasea eta justifikazioa –deialdiaren 4. eta 14. oinarrietan ezarritakoak– alda daitezen onestea, martxoaren 31ko 11/2020 LEDaren babespean.

Hautatze eta jarraipen batzordeak 2020ko ekainaren 18an egindako bilkuran aztertu zen proposamena eta, legezko betekizunak betetzen zituela egiaztatu zelarik eta deialdiaren xedea

aldarazten ez duenez, ezta hirugarrenei kalterik egiten ere, aho batez onetsi zen Tokiko Gobernu Batzarrari onesteko proposamena aurkeztea, onetsi eta argitaratu dadin.

Aipatutako gertakariei oinarri juridiko hauek aplikatu behar zaizkie:

Oinarri juridikoak

Lehena. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak (DLO aurrerantzean) diruz lagundutako jardueren finantzaketa arautzen du 19. artikuluan, eta 4. apartatuan berariaz xedatzen du hau: “dirulaguntzak emateko kontuan izandako baldintzak aldatzeak eman zireneko ebazpena aldatzea ekarri ahalko du berekin, dirulaguntzari buruzko arauetan ezarritako baldintzetan”.

Bestetik, 17. artikuluko hirugarren apartatuak, oinarri arautzaileen gutxieneko edukia zehaztean, 1) epigrafean berariaz ezartzen du alderdi hauek jaso behar dituela, besteak beste: “dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzearen ondorioz ebazpena aldaraz dezaketen zirkunstantziak”.

Bigarrena. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren erregelamendua (DLOE aurrerantzean) onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 61. artikulua onuradunak egin beharreko jardueraren zehaztapena arautzen du, eta lehen paragrafoan hau ezartzen du berariaz: “dirulaguntzaren xedea onuradunaren jarduera jakin bat bultzatzea denean, ulertuko da jarduera hori eskabidean adierazitako baldintzetan egiteko konpromisoa hartzen duela, emakida-prozeduran zehar edo egikaritze-aldian administrazioak onartzen dituen aldaketekin, halakorik egiten badu, betiere aldaketa horiek ez badute aldatzen dirulaguntza ematean lortu nahi zen helburua”.

Horrez gain, 2. paragrafoan gehitzen duenez, hirugarrenen eskubideei kalterik egiten ez bazaie, “emakida-prozeduran zehar, eskatzaileak proposatutako jarduera egiteko modua edo baldintzak aldatzea proposatu ahalko du administrazioak”. Horretarako, onuradunaren baimena lortu beharko du, eta baimen hori emandakotzat joko da, baldintza berriak jakinarazi ondoren, onuradunak 15 eguneko epean aurkakotasuna adierazten ez badu.

Hirugarrena. DLOEaren 64. artikulua, berriz, emateko ebazpena interesdunak eskaturik aldatzea ahalbidetzen du, oinarri arautzaileetan ondorio horietarako aurreikusitako zirkunstantziak gertatzen badira eta hirugarrenei kalterik egiten ez badie.

Laugarrena. Izan ere, DLOEaren 70. artikulua arabera, administrazioak, ofizioz edo interesdunek eskaturik, ezarritako epea luza dezake komenigarritzat jotzen bada eta hirugarren batzuen eskubideei kalterik egiten ez bazaie. Epearen erdia izan daiteke luzapena, gehienez ere.

Bosgarrena. 2019an lan-kontratazioa sustatzeko laguntzen udal deialdiari gagozkiolarik, deialdia ebatzi eta Covid-19arengatik alarma-egoera dekretatu ondoren, martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuak —covid-19aren krisiari aurre egiteko premiazko neurriei buruzkoa— 54. artikuluan (“dirulaguntza eta laguntza publikoen arloko neurriak”) aukera ematen du 463/2020 Errege Dekretua indarrean sartu zen unean emandako dirulaguntzen deialdietan “diruz lagundutako jarduera gauzatzeko epeak luzatzeko eta, hala badagokio, egikaritze hori justifikatu eta egiaztatzeko, dagozkion oinarri arautzaileetan jaso ez bazen ere”.

Ondorio horietarako, alarma-egoera indarrean egon den bitartean diruz lagundutako jarduera egiteko ezintasuna baino ez du justifikatu beharko organo eskudunak, edo hura bukatu bada, diruz lagundutako jarduera egiteko, justifikatzeko zein egiaztatzeko epea ez dela nahikoa (...).

2019an lan-kontratazioa sustatzeko udal laguntzen kasuan, kontuan hartuta covid-19ak eragindako osasun-krisia kudeatzeko martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez ezarritako egungo alarma-egoera dela kausa emandako udal dirulaguntzekin lotuta egindako lan-kontratazio batzuen iraupena nabarmen aldarazi duela, beharrezkoa da jarduera horien prozesuak eta/edo kronogramak egokitzea edo aldatzea, ezarritako helburuak lortu ahal izan

daitezen eta alarma-egoeran hartutako neurrien ondorioz jarduketak amaitzeko ezintasunak eskatzaileei kalterik ekar ez diezaien, horrek, gainera, batez besteko plantillari eusteko betekizuna egiaztatzea eragozten baitu.

Horrexegatik, eta dirulaguntza jaso duen jarduera egikaritzea eta justifikatzea malgutzearen, batez besteko plantilla mantentzeari eta justifikazioari dagokienez 4. oinarriaren 2. apartatuan eta 14. oinarriaren 6. apartatuan aurreikusitako atalaseen aplikazioa aldatzea proposatzen da, arau-aurreikuspenen egitura eta xedea behar bezala egokitu ahal izateko COVID-19ak sortutako epidemiaren ondoriozko errealitatera.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan aurreikusitakoa aplikagarri izango da. Orobat hartu dira kontuan premia eta efikazia printzipioak, proposatutako aldaketak baitira tresnarik egokiena lortu nahi den sustapenerako, zehazki, deialdiaren oinarrietan onetsitako xedapenetako batzuen aplikazioa malgutzeko neurriak eskaintzen direlako alarma ezartzeko dekretuak laguntzen onuradunei sortutako egoera larriari konponbidea emateko; izan ere, jardueren egikaritzeari eragiten dio horrek eta, beraz, aurreikusitako helburuak eta dirulaguntzaren xedea betetzeari. Era berean, proportzionaltasun-printzipioa hartu da aintzat, estali nahi diren behar koiunturalei aurre egiteko ezinbestekoa den araupetzea jasotzen baitu, eta ez baitie betebeharrak edo mugapen berririk ezartzen onuradunei. Segurtasun juridikoaren printzipioa ere betetzen du, deialdiaren betekizunak bere horretan uzten baitira, eta batez besteko plantillari eusteko betekizuna justifikatzeko epeak baino ez baititu aldatzen; horrenbestez, koherentea da deialdiaren xedearekin, hots, udalerrian enplegua sustatzearekin. Efizientzia-printzipioarekin ere koherentea da, postulatuaren efizientzia handiena bermatzen baitu.

Tokiko Gobernu Batzarrak du eskumena deialdia eta oinarriak aldatzeko, hura onetsi zuen udal organoa baita, Toki Jaurbidearen Oinarrien Legearen 127.1.g) eta 2 artikuluetan –Tokiko Gobernu Eraberritzeko Neurriei buruzko 57/2003 Legeak emandako idazkuntzan– eta Dirulaguntzen Udal Ordenantzak 5.1) artikuluan ezarritakoan ildotik.

Azaldutakoa kontuan hartuz, eta onesteko eskatzen diren legezko betekizunak betetzen direla egiaztatuz, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariek erabaki-proposamen hau egiten dio Tokiko Gobernu Batzarrari:

Erabaki-proposamena

Lehen. 2019an Vitoria-Gasteizen lan-kontratazioa sustatzeko laguntza ekonomikoen deialdiko 4. eta 14. oinarrietan –batez besteko plantilla mantentzeari eta justifikazioari buruzkoak– aldaketa hauek egitea onestea, arau-aurreikuspenen egitura eta xedea behar bezala egokitzeke Covid-19ak sortutako epidemiaren ondoriozko errealitatera:

1. 4. oinarriko (diruz lagun daitezkeen ekintzak) 2. paragrafoa.

Honela dio: “Kontratazioek enplegu sorkuntza garbia ekarri beharko dute kontratazioa diruz laguntzen zaien pertsonak bertaratu aurreko hiru hilabeteetan enpresak zuen batez besteko plantilla osoaren gainean —dirulaguntzak hartzen duen aldian enpresak duen batez besteko plantilla aintzat harturik—”

Honela behar du: “Kontratazioek enplegu sorkuntza garbia ekarri beharko dute kontratazioa diruz laguntzen zaien pertsonak bertaratu aurreko hiru hilabeteetan enpresak zuen batez besteko plantilla osoaren gainean —dirulaguntzak hartzen duen aldian enpresak duen batez besteko plantilla aintzat harturik—. Hala ere, baldintza hau etenda egongo da alarma-egoera hasten denetik (martxoaren 14a) amaitu arte”

2. 14. oinarriko (nahitaezko agiriak) 6. apartatua.

Honela dio: “6. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren ziurtagiria, diruz lagundutako kontratazio-aldiko batez besteko plantillari buruzkoa”

Honela behar du: “6. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren ziurtagiria, diruz lagundutako kontratazio-aldiko batez besteko plantillari buruzkoa. Kontratazio-aldi hori alarma-egoearekin bat badator, batez besteko plantillaren ziurtagiria, 2020ko martxoaren 14ra bitartekoa.”

Bigarrena. Diruz lagundutako enpresei erabaki honen berri ematea, eta orobat jakinaraztea erabakiaren kontra, administrazio-bidea agortzen baitu, zuzenean aurkez daitekeela administrazioarekiko auzi errekurtsua Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta.

Nolanahi ere, aldez aurretik aukerako berraztertze errekurtsua aurkez daiteke erabakia hartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta; kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu hori espresuki edo ustez ebatzi arte. Ondoren, ebazpen espresua ematen bada, bi hilabeteko epea izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkezteko, egintza jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta; bestela, edozein unetan aurkeztu ahalko da, berariazko araudiaren arabera administrazioaren isiltasunaren ondorioak sortzen diren egunaren biharamunetik aurrera.

Hirugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzeko agintzea, denek izan dezaten horren berri.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko ekainaren 30ean

Administrazio Zerbitzuko burua
LUCIO CRUCELEGUI Y JÁUREGUI